BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | **Prentsa Kabinetea** Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

UDALAK ABENDUAREN 15ERA ARTE LUZATU DU "BILBOKO EMAKUME ETORKINEN AINTZATESPENAREN" II. EDIZIORAKO HAUTAGAIAK AURKEZTEKO EPEA

- **Aurtengo edizioan hiru kategoria berri daude (Emakume artista; Emakume Giza Eskubideen defendatzailea eta Emakume gaztea), aurretik zeuden Emakume komunitateko agentea, Emakume ekintzailea eta Emakume politikaria kategoriekin batera.**

- **Immigrazio Gaietarako Bilboko Kontseiluak bultzatutako ekimenak emakume migratzaileek Bilboko bizitza sozial eta publikoan duten garrantzia aintzatetsi nahi du.**

- **Hautagaitzak on-line baino ezingo dira aurkeztu, Bilboko Udalaren webgunearen bitartez.**

(Bilbon, 2020ko azaroaren 14an). - Bilboko Udalak **abenduaren 15era arte** luzatu du "Bilboko Emakume Etorkinen Aintzatespena" ekimenaren bigarren ediziorako hautagaiak aurkezteko epea. Ekimena Bilboko Udaleko Immigrazio Gaietarako Bilboko Kontseiluak sustatu eta 2019an antolatu zen aurreneko aldiz, Bilboko bizitza sozial eta publikoan e**makume etorkinek duten garrantzia** aitortzeko eta aniztasuna aitortzen edo erreferente bihurtzen lagun dezaketen agertokiak sortzeko asmoz.

Oraingo honetan, "Bilboko Emakume Etorkinen Aintzatespenaren" barruan **sei kategoria** daude, aurreko edizioan baino hiru kategoria gehiago:

- **Emakume komunitateko agentea**: kategoria honek emakumeek auzoetan egiten duten lan komunitarioa aitortu eta ikusgai jarri nahi du, batzuetan ikusezina izan arren ehun sozialerako garrantzi handikoa delako.
- **Emakume ekintzailea**: emakume ekintzaileak, proiektu jasangarriak eta arrakastatsuak dauzkatenak, edozein jardun arlotakoak, taldean, elkartean edo norbanakoak gauzatzekoak.
- **Emakume politikaria:** eragin politikoa duten ekintzak gauzatzen dituzten emakume migratzaileei zuzenduta, ekintzak edozein jardun arlotako politika publikoak eraldatzera bideratuta daudenean eta alderdi politiko baten edo parte hartzeko edo eragin publikoa izateko beste gune batzuen bitartez gauzatzen direnean.
- **Emakume artista (kategoria berria)**: atal honetan aitortza egin nahi zaie arteekin zerikusia duen edozein jardunetan nabarmentzen diren emakume migratzaileei.
- **Emakumea, giza eskubideak defendatzen dituena (kategoria berria)**: giza eskubideen defentsan ibilbide bat egin duten emakume migratzaileei agertzen die ezagutza, bereziki garapen jasangarriko helburuekin zerikusia izan dezaketen eskubideak badira.
- **Emakume gaztea (kategoria berria)**: aurreko kategorietako edozeinetan ibilbide bat egina duten 30 urte arteko emakume migratzaileei agertzen die ezagutza.

BALDINTZAK

Bigarren edizioko hautagai izateko baldintzak hauek dira:

- **Atzerritar jatorrikoak izatea,** kontuan hartuz era bateko eta besteko mailetan elkar eragin dezaketen nortasun ardatz guztiak, hala nola genero identitatea eta/edo identitate sexuala.
- **Bizilekua Bilbon izatea.**
- **Gutxienez bi urtean aritu izana aintzatespena lortu nahi duen kategorian.**

Hautagaitzak on-line baizik ezin dira aurkeztu, Bilboko Udalaren webgunean, bi modutan:

- Entitateen, elkarteen, fundazio koordinatzaileen, federazioen eta enpresen bidez.
- Hautagaitza emakume migratzaileak berak aurkeztea, baldintzak betetzen dituela uste badu; hautagaitza zein kategoriatarako aurkezten duen adierazi beharko du, eta kategoria bakarra izango da. Hautagaitza-modalitate honetan, beharrezkoa izango da bi entitateren abalak aurkeztea.

Informazio gehiago: inmigracion@bilbao.eus

EL AYUNTAMIENTO AMPLÍA HASTA EL 15 DE DICIEMBRE EL PLAZO DE PRESENTACIÓN DE CANDIDATURAS PARA LA II EDICIÓN DEL "RECONOCIMIENTO A MUJERES MIGRANTES BILBAINAS"

- **Esta edición cuenta con tres categorías nuevas (Mujer Artista, Mujer defensora de los Derechos Humanos y Mujer Joven), que se añaden a las categorías de Mujer Agente Comunitaria, Mujer Emprendedora y Mujer Política.**

- **La iniciativa, promovida por el Consejo Local de la Inmigración, reconoce la importancia de la presencia de la mujer migrante en la vida social y pública de la Villa.**

- **Las candidaturas se pueden realizar exclusivamente de forma on-line a través de la página web del Ayuntamiento de Bilbao.**

(Bilbao, 14 de noviembre de 2020).- El Ayuntamiento de Bilbao ha ampliado **hasta el 15 de diciembre** el plazo de presentación de candidaturas para la segunda edición del **"Reconocimiento a Mujeres Migrantes Bilbainas".** Esta iniciativa, promovida por el Consejo Local de la Inmigración (CLI) del Consistorio bilbaino por primera vez en 2019, tiene como objetivo **reconocer la importancia de la presencia de la mujer migrante** en la vida social y pública de la capital vizcaina, así como posicionar escenarios de referencia y reconocimiento de la diversidad.

En esta ocasión, el certamen "Reconocimiento a las Mujeres Migrantes Bilbainas" cuenta con **seis categorías**, tres más que en la pasada edición:

- **Mujer Agente Comunitaria:** sección que se pretende visibilizar y reconocer el trabajo vecinal y comunitario que desarrollan muchas mujeres en sus barrios, en ocasiones invisible, pero de gran importancia para el tejido social.
- **Mujer Emprendedora:** incluye a mujeres emprendedoras con proyectos sostenibles y exitosos en cualquier sector de actuación que se desarrollan de forma grupal, asociativa o individual.
- **Mujer Política:** dirigido a mujeres migradas que realizan acciones de incidencia política, orientadas a la transformación de las políticas públicas en cualquier sector de actuación y que pueden desarrollarse en el marco de un partido político o bien, a través de otros espacios de participación o incidencia pública.
- **Mujer Artista (nueva categoría)**: sección que pretende reconocer a mujeres migradas que destacan en cualquier tipo de disciplina vinculada al mundo de las artes.
- **Mujer defensora de los Derechos Humanos (nueva categoría):** destinado a aquellas mujeres migradas con trayectoria en la defensa de los Derechos Humanos,

especialmente de aquellos que pueden vincularse a los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).

- **Mujer Joven (nueva categoría):** categoría que pretende distinguir a mujeres migradas jóvenes, de hasta 30 años de edad, que dispongan de trayectoria en cualquier otra de las categorías señaladas anteriormente.

REQUISITOS

Respecto a los **requisitos** para convertirse en candidata en esta segunda edición:

- **Mujeres de Origen Extranjero** teniendo en cuenta todos los ejes de identidad que pueden interactuar en múltiples niveles como la identidad de género y/o sexual.
- **Residencia en Bilbao.**
- **Una trayectoria de al menos dos años en la categoría objeto de reconocimiento**.

Las candidaturas pueden presentarse, exclusivamente de **forma on-line** en la página web del Ayuntamiento de Bilbao, de dos maneras distintas:

- A través de una entidad, asociaciones, fundaciones coordinadoras, federaciones, y empresas.
- Mediante una auto-candidatura, la mujer migrada que considere que cumple los requisitos; indicando una única categoría a la que desea postularse. En esta modalidad de candidatura será necesario la presentación de dos avales de entidades.

Más información: inmigracion@bilbao.eus